

# Gerrako ibilerak trajikomediazko bertsotan

Bertsolari eraginak erroak zabal izan ditu Euskal Herrian. Euskaldunak, bertsoak kantatzeko edo bertsoz irakurtzeko joera edo grina aspaldikakoak ditu. Joanes Etxeberri Ziburukoak, XVII. mendearren hasieran, berak zionez, bertsoz idazten zituen debozioezko liburuak euskaldunen artean aisago irakurtzen zela.

Maiz, euskaldunak, bertsoz agertu izan ditu sentipenak ez ezik gertakariak ere. Oinaz eta ganboarren garaiko eresietatik hasi eta gaur arte bada adibiderik aski Euskal Herriaren historian. Lekukorik egokienetako dugu, besteak beste, Jesus Maria Leizaolaren La "crónica" en la poesía popular vasca (1961) deritzan liburua.

Baina, horien artean ere bada mota bat oso berezia eta asko landu gabea. Ezbeharrezko gertakarien aurrean bertsoariak, bere tristurak agertzean, bere buruagan irri egiten duena, trajikomedia eran. Juan Jose Sarasola Azkue, "Lexo" izenordez ezagunagoa zen bertsolariak bada era hortakorik, 1894. urtean, Errenderiako fabrika batean, botazioetan huts egiea izan zutelako kalera bota zituzten nonbait eta horregatik zion:

**Botorik ez degunak  
lanteritik fuera,  
abill-ustian tonto  
gertatu gera;  
asko dakiter oiek  
gutxi gora-bera  
gu despatxatuzteko  
artu date era;  
dankaten kolera,  
denentzat galera,**

**oien ezaguera  
dakigula gera;  
ez dago seguratzik  
onez aurrera.**

Era hortakoak asko dira. Basarri berak ere baditu era hortako bertso politikak Basarri'ren bertso sorta (1950) liburuaren adibidez "Prantziko alkate bati", "Lesako'ko pestetan" eta beste. Baina nik ezagutzen ditudan politenetakoak, Eibartar batek "Gerrako gure ibilerak" izenez egin zituenak dira. Azken gerratean, Bizkaitik Asturiasera Santander zehar izan zuten erromes gisako martxa, armagintzako lantegia batean eta bestean kokatuz, eguzkinean bonbaz belduririk, janariz eskax edo gosez, goian zera eta behean lurra eta gau askotako ostuan izarrak zabal. Azkenean, euren buruak Avilés-en preso agertzeko. Han bertan, 1937. urtearen amaieran, Pepe Bolunburu kantariak, zortziko soinu alai eta airosa batean euren lepotik parre eginaz jarri zituen honako bertso hauak:

**Oraindik kontatuko dizuet  
gure gerrako historia:  
egin genduan bizimodu bat  
gutxi ikaragarria,  
denbora dana pasatu degu  
egozkiñen igesian;  
purra beharrik ez degu izan  
gera denbora gutxian.**

**Guregatikan ez dute ezango  
balientiak gerarik,  
zaratatzu bat entzun orduko  
hasitzen gina igesik;  
gu geran baino azkarragorik  
oraindik ez da ikusi,**

**Kiputxaneko Periko berriz  
danon artian nagusi.**

**Eibar abletik irten genduan  
aintzintziketan Deustura,  
Deustutik berriz estu ta larri  
joan gina Cabezón-era,  
Cabezón-dikan Borines-era,  
Borines-tikan Nava-  
ra, Nava-tik berriz Candás-  
era ta sartu ginduten barrura.**

**Izugarriko bizimodu,  
jarri digute orainte,  
ondo neurtuta dangauz ura  
ogirikin ez sobrate,  
eskabetezko sardiña lata,  
txizoro ta txokolate;  
berrido ere "kalabazía"  
haziko jaku bastante.**

Hor ikus daiteke, Bizkai aldean bertsozintzan hasten direnean gipuzkeraz egiteko hartzen duten ahalegina; horren arrazoi bakarra, indarra nagusi. Irakurleak laster oharrituko da bertako esaldi batzuetako intencioez.

Esate baterako, Kiputxaneko Periko, errena zen, baina hala ere egazkineri ihesi errejufiatu behar zenean bera omen zen azkarrena. Bertsozintzek horrekin adierazi nahi zuten zer nolako aintzintzikak erabiltzen zituzten. Bertan agertzen den "kalabazak", buru handia adierazi nahi du.

Baina bertso horiekin polita gertatu zen, trajikomedia hain ongi eraman denez, eibartar ezkeritar batek bere lepora irri eginaz prestatuak izanaren, bestaldekoak berentzat hartu zituzten eta kariotok eta baita falajistak ere kantatzen zituzten Eibarko gorrien kontura buruz. Gai-

nera, entzun izan ditut Pepe Bolunburu ber-berari jaso nizkion bertsoeri gehigarriak erantsiz ere. Batean:

**Eibartarrak baino azkarragorik  
ez da munduan ikusi;  
zaratatzu bat entzun orduko,  
hor dira danak igesi.**

**Edo beste honako hau gehituz,  
urma lantegiaren zuzendarietako bati  
erruak bota nahirik:**

**Galarragarat Benito ere bai,  
aeroplanuan sartuta,  
Valencia-ra igesik joan zan  
taillar gutxia saltuta.**

Lau bertsoen egiletzat azaltzen zen Bolunburu berari jaso Agirre Alcala zenari eman nion *Gula secreta de Guipúzcoa* (1976) egiterakoan, itzulpen ta guzi, eta han dator liburueren 115-117 orrialdeetan. Eibarko Club Deportivo-ko Kezka (1976) aldizkarian ere argitaratu nuen, doinu pentagrama ere jasoz.

JUAN SAN MARTIN

Huelga decir el gran arraigo del bersolarismo y la tradición a versificar existente en nuestro país. Etxeberri de Ciboure, a comienzos del siglo XVII, al escribir su obra religiosa en verso, manifestó la afición del vasco a los versos. Desde aquellas elegías de las guerras banderizas hasta nuestros días, donde el mismo cancionero constituye un pleno testimonio de este arte literario, cuenta con la maravillosa peculiaridad del improvisado. En dicho género literario, la crónica ocupa un lugar considerable, a la que J.M. do

## Arabako Nekazal - Arkitekturaren inbentarioa aurrera

"Chapeau". Horra hor Arabako Foru Aldundiak argitaratu berri duen "Arabako Nekazal-Arkiteturaren Inbentarioa. Aramaioko harana" deritzan liburua esku artean euki dudanean sortu zaidan hitza. Eta pedantekeria dela inork pentsa dezakeelakoan nagoelako era "jatorrago" batez esango da: txapela kenduta irakurri beharko zitezake publikapen hau. Hain ederra den!

Edozein herritako arkitekturak herri horren izanaren adierazpenik baikorrenetako bai dela maiz esan da.

Giza multzo batek sor dezakeen harreman sarearen erdian multzo horrek bere egoitzari emandako egitura aurkitzen da beti. Eta asko bizimodu kokretu baten ondorioz ditugu. Gizarateak - nekazal, arrantzal, industri...- arau batzuek markatzen ditu, barneko gorabeherak ez ezik baita kanpokoak ere erregulu dituztenak. Eta gizaratearen isplitzat har daiteke arkitektura, batez ere herak erroak fermuki sustraiturak dituztean.

Herririk eskain dezakeen historia-  
ren arauera azaltzen zaigu arkitek-  
tura, honek herriaren kultur-maila  
adieraz dezakeelarik. Jakina den be-  
zala, arkitektura herriko zenbait bal-  
dintzak mugatzen dute. Soziologi-  
koak ez ezik baita -noski-  
ekinomikoak eta -askotan- poli-  
ti-  
koak ere ditugu aldagarriak herriko  
arkitekturari dagokionez honek he-  
rriaren sustraiak zeinolakako diren  
ezagutzeko aukera damagularik

Baina ez da horrentan mugatzaileen zerranda amaitzen. Geografikoak, moda arrotzak...arkitekturarekin zekaririk duten baldintzak dira.

Denak aztertu beharrekoak edozein lurraldetako arkitekturari buruzko egitamu bat birbiliditu ahal izateko.

Aramaioko oraingo etxe eta base-  
rrietako zehazkiak jasotzen ditu  
argitaratu berri den liburua honek.

Oraindik zutik diraute eraikitzeak  
xeheatasunak, halegia. Beraz, datu bil-  
keta zuzena izan da egindakoa, honek  
obrenen balorea gehitu egiten duela-  
rik, ez bai txanxetako gauza izan be-  
rrehun etxe inguruko gorabeherak  
bildu eta katalogatu ahal izateko.

XVII eta XVIII gizaldietakoak  
dira -gehien batez- haraneko arkitek-  
tura eta aipatuak berrehun hoieta-  
rik ehan eta berriget eta hamar dira  
oraindik gaurgegu etxebizitza bezala  
era jarrai batez erabiltzen direnak.

Liburuaren "erditzea" luze xama-  
rra izan bada ere, bost urteko lana  
daroa bere horrialdeetan, emaitzak  
merzei izan duela bistan dago. Elkar  
lanean burututako publikapen honek  
aramaioren ez ezik baita euskal arkitek-  
turaz arduratzen den edozeinen  
hurrera ona loruko du, liburuan datu  
ierexgarri eta bixi asko aurki baitai-  
teke.

Aipatu dudun bezala, duela hirure-  
hun urteko eraikitak ditugu zahar-  
zabarrak eta hoiak garri hortako  
teknika zeinolakoa zen orakuston

ditu Arabako haran honetan izanda-  
ko ezagutzea era erakargarriagoa  
delarik, bertan Arabak lautadako bal-  
dintza naturalak zeharo aldatzen ba-  
litu. Gizona bera desberdina denez  
gero bere inguruko emaitzek beste bi-  
zimodu eta izakera espezifikoago  
batez hitzegien digute. Bizimodu ho-  
rrek sortutako alderdirik bereziene-  
tako bat arkitekturaren iger daiteke,  
argi eta garbi.

Eta, hain zuzen ere, liburuaren egile-  
lek aitortu duenez, Aramaioko hara-  
nan Arabako beste lurraldeekin  
duen desberdintasunak eragin ditu  
egindako ikasketari lehentasuna ema-  
tera, probintzia osoa aztertu nahi  
duen egitamu orokor baten barruan.

Bigarren zatit bat gerturik ei daukate  
Arabako Errioxari dagokiolarik.

Lau zatitan dago banatua liburua  
hau. Lehengoaren haraneko historiari  
buruzko zenbait aipamen dakar. Besta-  
lde, eraikuntzearen emaien diren  
ezagarririk nabarientzatuen klasifi-  
kapena: lelatuak, herstruak, arkuak,  
leihoak... Haraneko bizianleangan  
oraindik bizirik dirauten ipuin eta  
ohitura batzuk aipatzen dira zati  
honen amaieran. Bigarrenean, lu-  
zenea, Aramaioko auzoelako baserri  
eta etxeen datuak ezagutarazten ditu.

Hirugarren zatitan fitza teknikoak eta  
baserri gutzien zerrenda. Laugarre-  
nean, liburuaren erabiltako hiztegia,  
bibliografia eta aurkibide nagusia. Li-  
buru honen aurkezpena Apirillaren  
23. an egin zen. Gasteizen, prentsa-

rreko baten bidez. Baina, ene uste  
kaxkarrean, aurkezpen honi beste  
batez eman beharko litzaike jarraitu-  
penik, Aramaion bertan eratuakoa bi-  
lerra berezi batetan, jakina. Liburu-  
aren egileek heuren etxebizitza atek  
ideki zizkiotenen aurrera eraman be-  
harko litzateke publikapen hau, nahi  
eta borondate onik erakutsi zutenek,  
nolabait, eskertu ahal izateko. Bu  
dakit Aramaioko Udaletxera jo du-  
tenea egileek asmo honetat, eta ondo  
egingo luke Udakal ospakizun hori  
gautatu ahal izateko egun bat eska-  
niko balie.

Josemari

VELEZ DE MENDIZABAL

Creo que hay que descubrirse ante  
la obra recientemente publicada por  
la Diputación Foral de Alava bajo el  
título "Inventario de Arquitectura  
rural alavesa. I Valle de Aramaio-  
na". Y el que tenga duda que hooce  
el libro.

Enmarcado dentro de lo que pre-  
tende ser un inventario de la arqui-  
tectura rural de la provincia, este  
primer tomo dedicado a la corres-  
pondiente al valle aramaiotarra  
causa en el lector una magnífica im-  
presión. Y confío en que el resto a  
publicar tendrá la misma acogida  
que el que nos ocupa, cuya edición  
de 1.500 ejemplares va camino de  
agotarse rápidamente.

Es conocido que la arquitectura  
de cualquier pueblo es fiel reflejo de  
la idiosincrasia del mismo. En las  
formas y técnica de construcción

Leizaola tiene de...  
monografía. Per...  
mismo, la tradic...  
desarrollada, y e...  
obstante, haviere...  
el caso puede cit...  
tras en el borse...  
(mejor diría, el...  
Lexo), incluso en...  
ciones del periodo...  
pio Basarri.

De entre los más...  
a la manera de...  
visadores, políti...  
gure "lullera" y...  
la guerra, compa...  
rrés Pepe Bolun...  
nero en Avilés (e...  
cuenta c a gran...  
dades suñidas...  
industria armera...  
tirada desde V...  
cantando su p...  
commueve, produ...  
tiempo la risa y...  
circunstancia que...  
guerra, así como...  
cantaban los ba...  
falangistas, para...  
contrario de los...  
autor era procesa...

Los versos en vasc...  
versión castellan...  
malogrado Aguir...  
los incluyó en su...  
Guipúzcoa. Esta...  
airosa zortziko y...  
di a conocer en...  
Eibar en 1976. El...  
tendrá una nueva...  
en las presentac...

empleadas pod...  
un proceso de...  
ente humano, co...  
traba de positivo...  
diar el comporta...  
la sociedad eleg...  
"Anque el p...  
-y puede que h...  
claro que ha me...  
resultado del tra...  
lizado durante...  
ha conseguido...  
biéndose  
do" al prologa...  
quitectura em...  
que el mismo b...  
El libro...  
cuatro par...  
el que además...  
ha motivado...  
leer -entre...  
pequeño resu...  
Aramaio...  
características...  
varios cues...  
hoay en día...  
los aramaiot...  
publicación...  
lector en un...  
cia como es...  
cionales de...  
La presentac...  
lizo  
-digamos...  
pasado día...  
alavesa. En...  
organice un...  
matona para...  
trabajo desar...  
tudiasa b...  
obra.